

# Alkaŕ-maite

Bakoizkeri-utsa, norberakeri goŕotogaŕia, lizunkeri-antza, griñen irakitea, oben-luŕuna dakusgu aide guztietan nabari. Iñoren eŕukirik ez zan; geidearen zoritxaŕa ta ondamendia pozbide yakoen. Oŕa zeiñen ustel dakusgun gizartea.

Ustelak zintzotzera, igeŕak ezetzera, lizunak garbitzera, oben-luŕunak atzera etoŕi yakun Kisto.

Gizarte zauritsuoi osabidean Berak jaŕi eben. Guztiz osatu egien ordezkoak laga euzan. Ordezkook biotzez maite euzan. Oŕen maite ebezan ordezkazkin izan eban jardun aldiaren samuŕa...

Zeiñen edeŕ dan gau ilunetan argi izpia. Getsemani'rako bidean, itun-itunetan, bakartadean zeiñen biozkoiak, maitatiak Josu'ren itzak. "Mandatum novum de vobis; ut diligatis inoicem, sicut dilexi vos, ut et vos diligatis inoicem".

Alkaŕ maite egizue, neuk maite izan zaituetanez, maite izan egizue alkaŕ.

"Auxe da nire agindua; neuk maite izan zaituetanez zeuek alkaŕ maite izatea" diraútsoe ostera, be.

"Alkaŕ maite izan dagizuela agintzen dautzuet"—diraútsoe irugaŕenez.

Alkaŕ-maite... Alkaŕ-maite izate oŕeri "plenitu do legis" diraútso Paul Deunak. Lege oso esten dau.

卐 卐 卐

Kistaŕ zaitut, irakurle; kistaŕ zarala diraustazu. Egizko kistaŕ zaitudan ala ez ezagutzeko neuŕi Kisto'ren aginduoi dogu.

Alkaŕ-maite izatea dogu gure agindu nagusi; alkaŕ-maite izatea dogu kistaŕon ikuŕ eta ezaugaŕi.

"Norbaitek Kisto maite dauala ba'liño ta bere geidea goŕoto ba'leu, oŕeri ez siñestu, guzuŕa diño-la."

Geidea... maite... Nor da baiña gure geidea? Adizkidea, laguna geide estea ta maite izatea ez da zil, ez yaku latz. "Onetsi arerioak, be dirausku, baiña Paul Deunak. Oŕi, bai, gaŕatz.

Maite izatea baiña, ez da aŕera ona egitea, arpegi onez ikustea, kalterik ez egitea. "Geide oŕi gose ba-da, janaritu egizu; egaŕi ba-da, edaria emon egiezu; oŕi egiñaz baretuko dozu." "Si esuriet inimicus tuus, ciba illun; si sitiet potum da illi".

"Alkaŕi lagundu egiozue", danok alkaŕen atal gara-ta.

Orixe dogu egizko maitasuna; orixe egiz alkaŕ maite izatea.

"...esa caridad, mandada con estricto precepto por Jesucristo, no se la encuentra en gran parte de los que llevan el nombre de católicos", inoeu itzaldi baten Laburu Aita'k biotza miñez zulotuta.

卐 卐 卐

Kisto'ren alkaŕ-maite izateko aginduoi edaŕ estea ez da naiko. Bete egin beaŕa dogu. Adimenak bete-beaŕeko ezten dausna, egitez bete egin beaŕ da. Orixe da gizonari yagokonez jokatzea. Naimena adimenaren esanetara makuŕtu beaŕ da.

Judutaŕen jokalegea dogu Kisto'ren esanak onartu ta bete ez egitea. Judutaŕen antzeko gaituzu izan kistaŕ asko, be.

Biotzak adimenari geiago egin eutsan Judutaŕen aŕtean. "Et audientes mirati sunt et relicto eo abierunt". Miragaŕi izan yañoezan Kistoren itzak baiña Kisto laga ta aldendu egin ziran. Goizpariki edo Ebangelioak dirauskunez.

Zeiñen edaŕa Kisto'ren agindua! Zeiñen jatoŕa ta pozgaŕia izango litzake baiña gizartea agindu oŕi beteten ikustea!

卐 卐 卐

Besterik gendutzan lenengo kistautasun-urteetako kistaŕak.

"Kistaŕ guztiak biotz bat eta arima bat eben" dirausku Paul Deunak pozaduretan.

Ez zan oŕein aŕtean goŕotorik. Anai antzo bizi ziran.

Maitasun orde goŕotoa dabezak kistaŕak diranik esan al-daike?

Aldi aretako kistaŕok geideei, batez, be, zoritxaŕdun eta txiroei eutsen maitasuna ta begiramena, aldi aretako kistaŕ ez ziran idazleei, be, begi-begiko izan yakoen.

Kistaŕ oŕeik naiz eurotariko izan naiz izan ez berdin maite eben lagun -urkoa.

Kistaŕ garbetua zan eta kistoren arerio zital Juliano aŕoak bere menpekoei, kistaŕen geide-maitasuna jaŕaigaŕi ta eredutzat ipiñi eutsen.

"Euretarikoak bakaŕik barik, geuretarikoak, be, janaritzen dabezan galileaŕ erlejiño gabeak (oŕi kistaŕei buruz diño) oŕi egitean, ondo jokatzen dabe."

Gauŕ, be, kistaŕon aŕtean taju oŕetako geide-maitasuna ba'lekuse kistaŕ garbatu ta Kisto'ren arerio zital diranak, besterik entzungo genduke.

ARETXIÑAGA.